

Sagar urtea

AURRERA-ATZERA HONETAN, aurtengo uda hau xelebrea doa, bada. Fruituen urte berezia. Tomateak eta piperrak ez dira makal ari, eman eta eman. Itxura kaskarra lekei eta babarrunei sumatzen diet; udak aurrera eta egun argiak atzera ahala hobetu direla badirudi ere. Horietan ondoena, ia urteroko legez, izalegez edo naturalegez, artoarekin batera bizi diren babarrunak. Eta sekulako sagar urtea da. Adi, orde, sagardoa egin nahi duenak, beste urteen aldean goiz dator sagarra, hiru bat aste lehenago; batez ere, barrualdeko sagastietan.

Geurean sagar urte oparoa bada ere, Europan bestelakoa diote. Aurtengo sagar uzta iazkoa baino apalagoa izango da. 2013tik 2014ra %15 hazi zen sagar uzta eta 2014tik 2015era %5 inguru uzokurtuko da. Bertakoak estimu hobea izango ahal du. Hamabi milioi tona eskas sagar bilduko ote diren kontuak aipatu dituzte Italiako Meranon duela hilabete inguru bildutako WAPA, Sagarraren eta Udarearen Munduko Elkartearen bilkuran. Kontu horiek guztiak Europar Batasuneko 28 estatuei



EINSTEIN02-CC BY SA

Golden Delicious izango da aurtengoa Europar Batasunean gehien bilduko den sagar aldaera.

buruzkoak dira. Europan gehien ikusiko diren aldaerak hauek dira: Golden Delicious, 2,5 milioi tona; Gala, 1,3 milioi tona; Idared, 1,1 milioi tona; eta Red Delicious, 0,6 milioi tona. Suitzan, Estatu Batuetan eta Kanadan ere behera egingo omen du aurtengo sagarraren emanak; Ukrainan, Txinan eta Errusian berriz, gora.

Euskal Herrian erdipurdi gara; etxeko datuak ezean, hona kanpoez begiratzen gaituztenak: Espainian sagar uzta jaitziko dela

badiote (milioi kilotona, 505etik 486ra), Frantzian igo egingo omen da (1.444tik 1.594ra). Klimaren laguntza gozoari esker, kalitate onekoa izango omen da aurtengoa sagarra, eta kalibre ederrekoa. Sagardoa kanpoko sagarrarekin egiten dugunok atzea nola dantzatu asmatzera jartzen ahal gara! Hori bai, hurrengo txotx denboraldiaren irekiera ekitaldi urardotuan, aurtengo sagardoa ona edo oso ona dela esanez etorriko zaizkigu; sagardo gainezko bitsetan, lasaipoto asko. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! Egutera ematen duen barrutitxo bat dut Donostia aldean. Laranja eta limoiando landare bana aldatu nahi nituzke. Zein da sasoi hoberena? Eta inguru hauetarako zer mota da egokiena? Mila esker.

Rafa Garaikoetxea (Donostia)



FIGU-CC BY SA

Kaixo Rafa. Donostia aldea berez ez da leku txarra zitrikoentzat. Gure itsasbazterra paradisua da. Zitrikoek ez dute historik galtzen neguan, eta beraz, udazkenaren sarreraren, urri aldera, edota udaberri gozoan, apiril aldera. Bietan egunaren eta gauaren luzera antzekoak dira.

Negu-neguan ez behintzat! Egutera horretan hormaren bat bada, haren kontra jarri, babesareagotzeko.

Nire ustez edozein zitriko mota ondo etorriko da. Behin lan hori hartuta, bereziren bat ere jarri: lima, kunkuta, tangerina...



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.